



GAIXOTASUN PROFESIONALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2018. URTEKO TXOSTENA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

GAIKOTASUN PROFESIONALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2018.
URTEKO
TXOSTENA



OSALAN

**Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea**

Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

BARAKALDO, 2019

Edizioa:

1.a, 2019ko iraila

Tirada:

50 ale



OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Internet:

www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea:

OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Egileak:

CAMARÓN ECHEANDÍA, Idoia (Responsable de Epidemiología. Unidad de Salud Laboral. OSALAN)

LÓPEZ ECHÁNIZ, Idoia (Técnica de Epidemiología. Unidad de Salud Laboral. OSALAN)

Maketazioa:

The Old Market 56. C/ RIBERA, 1, 1ºD. 48005 BILBAO

Azaleko diseinua:

The Old Market 56. C/ RIBERA, 1, 1ºD. 48005 BILBAO

Fotokonposizioa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 - Zamudio. BIZKAIA

Inprimaketa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 - Zamudio. BIZKAIA

LG:

BI-02438-2019

AURKIBIDEA

1.	METODOLOGIA	5
2.	GAIXOTASUN PROFESIONALAK, 2018	8
2.1.	Arriskupeko langileak	8
2.2.	Kopuru absolutuak eta gaixotasun profesionalen intzidentzia tasak	8
2.3.	Arrisku neurriak. Arrisku taldeak	17
2.4.	Konparazioa beste Autonomia Erkidegoekin	19
2.5.	Gaixotasun profesionalen prebentziorako inpaktua	19
3.	ONDORIOAK	21
	GAIXOTASUN PROFESIONALAK 2018, TAULAK	25
	GAIXOTASUN PROFESIONALAK 2018, GRAFIKOAK	64



1. METODOLOGIA

1.1. Datuen iturria

Gaixotasun profesioen parteak telematikoki jakinarazten dituen CEPROSS aplikaziotik sortutako fitxategi estatistikoa erabili da txosten hau egiteko (Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioko Gizarte Segurantzaren Antolaketarako Zuzendaritza Nagusia). Fitxategiak EAEko enpresetako gaixotasun profesionalen parteak dauzka, 2007tik 2018ra bitartekoak, mutualitateek CEPROSS sistemari jakinarazitakoak. Gizarte Segurantzaren Sistemako gaixotasun profesionalen koadroko 1299/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskineko gaixotasunen parteak dira horiek.

Gaixotasun profesionalen aldi bateko bilakaera aztertzeke erabili dira CEPROSS 2007-2018 fitxategi estatistikoa, eta IGATT aplikaziotik ateratako 2000-2006ko gaixotasun profesionalen fitxategia.

1.2. Aztertu beharreko datu multzoa: denbora-tartea eta hautaketa-irizpideak

2018an eta 2017an CEPROSS aplikazioan erregistratutako GPen parteak aztertu dira. Gaixotasun profesionalen parteak erregistratu diren eguna izan da hautaketa-iragazkia. Urte arteko analisi alderatua egiteko, baztertu egin dira azkenean laneko istripu eta gaixotasun arrunt sailkatutako parteak.

Azken 19 urteotako gaixotasun profesionalen bilakaera aztertzeke, 2000tik 2018ra arteko (biak barne) gaixotasun profesionalen datuak bildu dira, informazio-iturri eta hautaketa-irizpide berberak erabilita. 19 urteko aldian, gaixotasun profesionalen indargabetutako partetik eta parte berritik ateratako datuak bateratzean, ezin izan dira baztertu laneko istripu edo gaixotasun arrunt gisa sailkatuak. Hori dela-eta, baliteke emaitzak bat ez etortzea erabat, laneko istripuak eta gaixotasun arruntak baztertuta daudelako tauletan, baina grafikoetan ez.

1.3. Ikertutako populazioa

Istripuak eta gaixotasunak izateagatik ikertu den populazioa EAEko langileak dira, Gizarte Segurantzara afiliatuak, azterlanak iraun duen aldietan alta hartuta daudenak eta Gizarte Segurantzako edozein araubideren barruan laneko kontingentzietatik babesturik daudenak. Laneko kontingentziengatik babesik ez duten autonomoak kanpo utzi dira.

Gizarte Segurantzara afiliaturiko populazioa hartu eta aldagai hauen arabera bereizi da: araubidea, lurralde historikoa, ekonomia-jarduera, adina, sexua eta kontratu mota, 2009tik 2018ra.

1.4. Aztertutako aldagaiak eta txostenean erabilitako maiztasun- eta arrisku-neurriak

Gaixotasun profesionalen 2018ko txostena egiteko erabili den azterketa deskribatzailea da batik bat. Txosteneko tauletan eta grafikoetan, aldagai zehatz batekin edo bi aldagai gurutzatuta eman dira emaitzak. Emaitza horiek 2018ko urtea 2017rekin alderatuz adierazten dira, edo urteen serie ebolutibo baten bidez. Erantsitako taulan datoz aztertutako aldagai deskribatzaile nagusiak, multzoka, pertsonen, gaixotasunaren, lantokiaren edo denboraren ezaugarrien arabera.

Dimentsioa	Ezaugarria (aldagai deskribatzailea)
Pertsona	Sexua Adina Okupazioa
Gaixotasuna	Diagnóstico (grupo de enfermedades) Baja laboral Agente causal
Lantokia	Lurralde historikoa Jarduera (ESJN): Dibisioa eta sektorea
Denbora	Egutegiko urtea ABEaren iraupena

2018ko gaixotasun profesionalei buruzko informazioa biltzeko, lau neurri erabili dira:

1. Ikertutako denboraldian izandako istripuen eta gaixotasun profesionalen kopurua.
2. Bajaren iraupena. Bajaren eta altaren arteko egunak dira bajaren iraupena. Datu hori, jakina, kasu itxietan bakarrik dago, eta horiexek erabili dira atal honetan.
Bajaren iraupena alderatzeko, iraupenaren mediana kalkulatu eta alderatu egin ditugu Wilcoxon rank-sum test ez-parametrikoren bidez.
3. Urteko intzidentzia-tasa. Toki eta urte jakin batean GP berriek izandako maiztasuna eta garrantzia neurtzen dituzte. Gaixotasun profesionalen kopurua da, urte eta leku jakin batean, mila laguneko.
4. Arrisku-neurriak, intzidentzia-tasen erlazioaren arabera kalkulaturik. Hau da, gaixotasun profesionalak zenbat aldiz ugariago diren ezaugarri bereko pertsonen artean, beste talde baten aldean.

Intzidentzia-tasen erlazioak kalkulatzeko orduan, kontuan hartu da langileen sexua, adina, kontratazio mota, lurraldea eta enpresaren jarduera-sektorea, gaixotasun profesionala agertu denean. Faktore guztiak batera aztertzeko, erregresio-eredu bat erabili da, faktore bakoitzak gaixotasunen intzidentzia-tasan izan lezakeen eragina neurtzeko, zeinahi izanik ere aztertutako gainerako faktoreak.

2018ko gaixotasun profesionalen urteko intzidentzia-tasa modelizatu egin da Poisson-en erregresio baten bidez, honako aldagai hauek doitu: sexua, adin-taldea (16-29, 30-49 eta 50 edo gehiago), parte erregistratu den lurraldea, eta langilearen jarduera-sektorea. Bi eredu doitu dira: lehenengoan, GP bajadun eta bajarik gabeko berri guztiak sartu ziren; bigarrean, aldiz, GP bajadun berriak bakarrik.

Intzidentzia-tasen erlazioa kalkulatzeko da modeloan lortutako koefizientearen esponentzialaren bidez, gainerako aldagaiekin doitu.

5. Saihesteko neurriak edo gaixotasun-kasu saihesgarriak, ekonomia-jarduerako taldeen arabera (ESJN-09), kontuan hartuz EAEko langileen arriskuaren ehunekoa (%LAE). % LAE kalkulatzeko, erreferentziako intzidentzia-tasa moduan erabili da ESJN-09ko talde bakoitzaren tasen mediana.

2000-2018 arteko gaixotasun profesionalen bilakaera azaltzeko, urte bakoitzeko intzidentzia-tasa eta kasuen kopurua erakusten dira.

STATA 14.2[®] paketearen bidez datuak aztertu eta lortu dira grafikoak.

2. GAIXOTASUN PROFESIONALAK 2018

2.1. Arriskuan den populazio langilea

Esan den bezala, azterketa egiteko, Gizarte Segurantzari afiliatuta eta laneko kontingentzien aurrean babestuta dauden EAeko langileak hartu dira arriskuan den populazio gisa.

Populazio hori ez da egonkorra eta, 2017rekin alderatuta, 2018an gorabeherak izan ditu. GP-1 taulan ageri da afiliatutako biztanleen urte arteko gorabehera, lurraldeen eta jarduera-sektoreen arabera, gizonezkoak eta emakumeak bereizita. Oro har, EAEn 2018an % 2,5 ugairu da Gizarte Segurantzari afiliatutako populazioa. Eraikuntzan ugairu da gehien (% 4,8), ondoren zerbitzuetan (% 2,6) eta gutxiago industrian (% 1,8).

Lehen mailako sektorea % 0,4 murriztu da aurreko urtearen aldean, % 3,7 gutxitu baitira sektore horretako emakumeak.

Eraikuntzako gizonezkoak ugairu dira gehien (% 5), eta eraikuntza izan da ere lurraldez lurralde gehien ugairu dena, hain zuzen ere % 7 Gipuzkoako emakumeen artean.

Erreferentziazko populazioaren aldakuntza horiengatik dira, hein batean, gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasen gorabeherak.

2.2. Kopuru absolutuak eta gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasak

2018an gaixotasun profesionalen 3.265 parte erregistratu dira. Horietatik 260 lan-istripu edo gaixotasun arrunt gisa sailkatu dira, eta ikerketatik kanpo geratu dira. Kasu horiek kanpo utzi ondoren, laneko 3.005 gaixotasun zenbatu dira.

Jakinarazitako 3.005 gaixotasun-parteeetatik 2.064 berriak izan dira, eta berriz gaixotzeak 941 (GP-2 taula). 2017rekin alderatuta, gaixotasun profesionalen 246 parte gehiago izan dira 2018an, hau da, % 9 gehiago. Berriz gaixotzeen parteak % 12 ugaritu dira aurreko urtearen aldean, eta kasu berriak % 8.

Gaixotasun profesionalen parteak % 9 ugaritu dira, emakumeen nahiz gizonezkoen artean. Nolanahi ere, emakumeen artean kasu berriengatik izan da, % 16 ugaritu baitira, eta berriz gaixotzeak % 5 gutxitu dira. Gizonen artean, ordea, berriz gaixotzeak % 22 ugaritu dira, eta kasu berriak % 4.

1. eta 2. irudietan ageri da zenbateko igoera izan duten gaixotasun profesionalen parteek zein 2018ko intzidentzia-indizeak. GP berrien intzidentzia-tasa % 4 igo da, 2017ko 2,5etik 2018ko 2,6ra, mila langileko. Intzidentzia-tasa hainbeste igo bada, emakumeen artean intzidentzia-tasa igo delako izan da (% 12). Gizonen artean pitin bat jaitsi da intzidentzia-tasa (% 0,3).

GP-3 taulan dator aitortutako lan-gaixotasunek EAEn 12 urtez, 2007 eta 2018 artean, izandako bilakaera, bai eta GP berrien intzidentzia-tasa ere, sexuaren arabera. Datu berak agertzen dira 9. irudian, grafiko moduan.

2011 eta 2018 artean, aitortutako lan-gaixotasunak % 6 ugaritu dira, gizonezkoak eta emakumeak bereizi gabe. Emakumeen artean % 46 ugaritu dira, eta gizonezkoen artean % 8 murriztu. Gaixotasun profesionalen 2011-2018 arteko intzidentzia-tasari dagokionez, % 17 murriztu da kasu bietan, gizonen artean % 25, eta emakumeen artean % 19 igo da. Hor ikusten da, beraz, EAEko emakumeen gaixotasun profesionalak ugaritzen ari direla.

2018ko 3.005 gaixotasun profesionalen parteetatik, 2.826 urte horretan itxi dira eta 179 zabalik zeuden urtearen amaieran (GP-4 taula). GP-4 taulan agertzen dira kasuak ixteko arrazoiak. Gaixotasun profesionalen prozesuak ixteko arrazoiak aurreko urtearen antzekoak dira. Ezintasun iraunkorrak eta baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrak proposatzen dituzten parteak ugariagoak dira gizonen artean.

2018an aitortutako lan-gaixotasunen parteetatik % 46 bajarekin ziren eta % 54 bajarik gabe, aurreko urtean bezala (GP-2 taula). GP bajadunak asko samar murriztu dira kasu berrietan, hau da, alde batera utziz berriz gaixotzeak. 2018ko GP berrien artean, % 28k preskribaturik zuen baja, eta % 72k ez. GP bajadunen intzidentzia-tasa pixka bat igo da aztertutako azken 5 urteotan, baina 2018 eta 2017 paretsu daude (3. irudia). Azken 4 urteotan, baina, berriz gaixotze bajadunak ugaritzen ari dira bajarik gabekoen aldean, batik bat lehenbiziko berriz gaixotzeen kasuan (5. irudia).

Gaixotasun profesionalen prozesua eta iraupena

Gaixotasun profesionalen prozesu bat da langile batek gaixotasun beragatik izandako parte itxien multzoa. Parte itxi bakoitzaren baja-egunen metaketa da iraupena.

GP-6 taulan datoz gaixotasun profesionalen baje iraupen-datuak. 2018an, gaixotasun profesionalen prozesuen bajek 36 eguneko mediana izan dute, 2017an baino 1 egun bat gutxiago ($p=0,1765$). Gizonezkoen baja-egunen mediana 30 egunekoa izan da, eta emakumeena 45ekoa ($p=0,0000$).

2017ren aldean, 2018an gutxitu egin da gaixotasun profesionalen baje iraupena. Gizonen artean, 2018an gutxitu egin da bajaren iraupena, bai gaixotasun berrietan bai lehenbiziko edo ondorengo berriz gaixotzeetan. Emakumeen artean, aldiz, asko samar luzatu da gaixotasun berrien ezintasun-aldia, pixka bat handitu da lehenbiziko berriz gaixotzeetan, eta pixka bat txikitu da bigarren eta ondorengo berriz gaixotzeetan.

Gaixotasun motaren arabera eta prozesu itxiak bakarrik kontuan hartuz (GP-7 taula), tumore-patologiak baje dira luzeenak, eta ondoren konpresio-neuropatiak (karpoko kanalaren sindromea). Iraupenak aurreko urtearen antzekoak dira, baina patologia infekziosoen mediana 3 egunetik 11ra luzatu da.

Gaixotasun profesionalak, sektorearen eta lurraldearen arabera

2018an, industriaren sektoreak izan du gaixotasun profesionalen kopururik handiena, gehienak gizonezkoak, eta emakumeek zerbitzu-enpresetan izan dute gaixotasun profesionalen kopururik handiena. Industriak izan du intzidentzia-tasarik handiena, gizonengan zein emakumeengan. (GP-8. taula)

Kasu berrien % 51 industriako langileak izan dira, eta zerbitzu-enpresetakoak % 41.

Aurreko urtearen aldean, 2018an ugaritu egin dira gaixotasun profesionalen parteak eraikuntzan, industrian eta zerbitzuetan, eta berdin segitu dute lehen sektorean. Horren arabera izan dira eraikuntzako eta zerbitzuetako intzidentzia-tasak, baina lehen sektoreko tasa dezente jaitsi da eta industriakoak berdin jarraitu du (6. irudia).

Sexuen arabera (GP-8 taula eta 12. irudia), emakumeen artean jaitsi egin da aurreko urteko lehen sektoreko gaixotasun profesionalen kopurua (8tik 1era), dezente handitu da industrian (% 25 ugaritu direlako emakumeen gaixotasun profesionalak sektore horretan), eta zerbitzuen sektoreko intzidentzia-tasak ere gora egin du pixka bat. Berdin jarraitu du, ordea, eraikuntzan.

Gizonen artean, intzidentzia-tasa handitu egin da eraikuntzan eta zerbitzuetan; aldiz, txikitu egin da lehen sektorean eta industrian.

Gaixotasun profesionalak ez dira modu homogeneoan banatu lurraldearen arabera. Zenbaki absolututan, Bizkaian gertatu dira kasu gehien, baina intzidentzia-tasa handixeagoa izan da Gipuzkoan (GP-9 taula eta 7. irudia). 2017ren aldean, 2018an % 9 igo dira aitortutako lan-gaixotasunak EAE osoan. Igoera % 12koa izan da Araban, % 9koa Bizkaian eta % 8koa Gipuzkoan. Araban eta Bizkaian, gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean igo da, eta Gipuzkoan % 7 jaitsi da emakumeen artean.

Lurralde bakoitzeko jarduera-sektoreari erreparatuta (GP-10 taula eta 8. irudia), 2018an ere ekoizpen industrialeko enpresak dira gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasarik handiena dutenak eta ugariena, Araban izan ezik, han industrian baino ugariago baitira zerbitzuetan. Sektore hori da bigarren ugariena, bere intzidentzia-tasa gorantz doa oso pixkanaka, Gipuzkoan berdin segitzen duen arren, eta enpresa horiek gero eta karga handiagoa dute gaixotasun profesionalen multzoan.

Gaixotasun profesionalak, adinaren eta sexuaren arabera

GP-11, 12 eta 13 tauletan adinaren eta sexuaren arabera erakusten dira gaixotasunak. Intzidentzia askoz handiagoa izan da gizonezkoen artean emakumeen artean baino adinik handienetan eta ertainetan, eta handixeagoa emakumerik gazteenen artean.

Gizonen artean, intzidentzia-tasa handiagoa izan da adinik handieneko taldean, eta emakumeen artean, berriz, intzidentzia berdintsua izan da adinik handieneko eta ertaineko artean.

Tauletan azaltzen ez den arren, adinik handieneko gizonen artean GP gehiago daude hipoakusiengatik, eta emakumeen artean muskulu-tendoietako patologiengatik eta karpoko kanalaren sindromeengatik.

Aurreko urtearen aldean, gaixotasun gehiago daude adinik txikieneko eta handieneko emakumeen artean, eta adinik handieneko eta ertaineko gizonen artean. Intzidentzia-tasa igo egin da emakumeen adin-talde guztietan eta 30-49 urte arteko gizonengan (11. irudia).

Gaixotasun profesionalak, ekonomia-jardueren arabera

Ekoizpen-jarduera gutxi batzuetan ematen dira GP gehien. Urtero gertatzen da berdin. 2018an, hamar ekonomia-jardueratan eman dira EAEko gaixoaldi berrien % 63. Maiztasunaren arabera: “produktu metalikoen fabrikazioa, makinak eta ekipamendua izan ezik” (% 16,3); “metalurgia eta burdinazko, altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa” (% 8,3); “garbiketa-zerbitzuak eta jarduerak” (% 5,9); “hezkuntza” (% 5,7); “txikizkako merkataritza” (% 5,5); “motordun ibilgailuen fabrikazioa” (% 5,5); “eraikuntza espezializatuko jarduerak” (% 4,8); “n.c.o.p. makinak eta ekipamenduen fabrikazioa” (% 4,6); “janari- eta edari-zerbitzuak” (% 3,5) eta “egoitzetako lanak” (% 3).

Aurrekoa urtearen aldean, aldatu egin da maiztasun-rankingaren ordena. Ehunekoetan, GP gehiago daude motordun ibilgailuen fabrikazioan eta egoitzetako lanetan, eta gutxiago, berriz, makinak eta ekipamenduen fabrikazioan eta eraikuntza espezializatuan (GP-14 taula).

Emakumeen artean, GP berrien % 67 eman dira zazpi jardueratan, gehienak zerbitzuetakoak: “hezkuntza” (% 15,4); “garbiketa-jarduerak” (% 13); “txikizkako merkataritza” (% 11,4, 2017an baino 4 puntu gutxiago); “egoitzetako lanak” (% 7,8, 2017an baino 2 puntu gehiago); “ostalaritza” (% 7,7, aurreko urtean baino 2 puntu gutxiago); “produktu metalikoen fabrikazioa” (% 7,2) eta “elikagaigintza” (% 4,5).

Gizonen artean, aldiz, industria-jarduerak dira ugariak, baina aurten rankingean sartu dira “enpleguarekin lotutako jarduerak”, eta honela geratu da gizonezkoen GP ugariaren rankinga: “produktu metalikoen fabrikazioa” (% 21,5, 2017an baino 3 puntu gutxiago); “metalurgia” (% 12,2, 2017an baino 2 puntu gutxiago); “eraikuntza espezializatua” (% 7,5); “makinak eta ekipamenduen fabrikazioa” (% 6,9); “ibilgailuen eta haien osagaien fabrikazioa” (% 6,6, aurreko urtean baino 2 puntu gehiago); “enpleguarekin lotutako jarduerak” (% 3,2, 2017ren aldean 2 puntu gehiago), eta “eraikuntza” (% 2,8).

Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa aintzat hartuz, gaixotasun profesionalaren arrisku gehien duten jarduerak ez datoz guztiz bat ugariaren izan direnekin. GP berrien intzidentzia-tasarik handieneko sei ekoizpen-jarduerak honako hauek izan dira, hurrenkera honetan: “basogintza eta baso-ustiapena” (11,7 x 1.000), “metalurgia; burdinazko, altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa” (9,7 x 1.000), “produktu metalikoen fabrikazioa, makinak eta ekipamendua izan ezik” (8,9 x 1.000), “motordun ibilgailuen fabrikazioa” (8,5 x 1.000), “ehungintza” (7,9 x 1.000) eta “bestelako manufaktura-industriak” (7,3 x 1.000).

Jarduera horietako batzuk intzidentzia handikoak baina kasu gutxikoak dira; adibidez, basogintza- eta ehungintza-industriak batuta 9 kasu dira, hau da, 2018ko kasu berri guztien % 0,4. Horrek garrantzia du arriskuak saihesteko

neurriei eta kasu saihegarriei begira, geroago ikusiko dugun moduan. Jarduera horietan ematen da intzidentziarik handiena gizonen artean, eta baita “bestelako produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioan” ere (8,15 x 1.000).

Emakumeei dagokienez, kasu gehienak zerbitzuetan gertatzen badira ere, intzidentzia-tasak altuagoak izan dira industrian. Hain zuzen ere: “motordun ibilgailuen, atoiien eta erdiatoiien fabrikazioa” (12,1 x 1.000), “hondakinak biltzea, tratatzea eta deuseztatzea” (12,1 x 1.000), “produktu metalikoen fabrikazioa, makinak eta ekipamenduak izan ezik” (8,8 x 1.000), “arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa” (7,70 x 1.000) eta “elikagaigintza” (7,38 x 1.000). Nolanahi ere, “hondakinak biltzea, tratatzea eta deuseztatzeak” eta “arte grafikoek” 6na kasu berri dituzte.

Urtez urte aldatzen dira ekonomia-jarduera batzuetako GP berriak, diagnostikatutako gaixotasun motaren arabera (GP-22 taula). Hala, 2017an bezala, 2018an ere muskulu-tendoietakoa gaitzak ugaritu egin dira ekoizpen-jarduera gehienetan, baina batik bat enpleguarekin lotuko jardueretan, makinaren eta ekipamenduen fabrikazioan, eta motordun ibilgailuen eta produktu metalikoen fabrikazioan. Gutxitu egin dira, ordea, elikagaigintzan eta garbiketaren jardueretan. 2017an ez bezala, 2018an asko ugaritu dira konpresio-neuropatia periferikoak (adibidez, karpoko kanalaren sindromea) ia jarduera guztietan; batez ere, egoitzetako lanetan, elikagaigintzan, makinaren eta ekipamenduen fabrikazioan eta eraikuntza espezializatuan. 2018an ugarituz jarraitu duen beste patologia bat GP infekziosoak dira, 37 kasu egon baitira egoitzetako lanetan. Pixkanaka gorantz doaz ahots-korden arazoak hezkuntzako langileen artean. 2018an dezente ugaritu dira larruazaleko gaixotasunak garbiketa-langileen artean, enpleguarekin lotutako jardueretan eta produktu metalikoen fabrikazioan.

GP-23 taulak agertzen du patologia horien intzidentzia-tasarik eta kasu kopururik handienak dituzten ekoizpen-jardueren taldeen rankinga, GP mota bakoitzaren arabera eta gizonak eta emakumeak bereizita.

Emakumeen artean, motordun ibilgailuen fabrikazioan eman zen muskulu-tendoietakoa gaitzen intzidentzia-tasarik handiena, eta kasu gehienak, berriz, txikizkako merkataritzan eta produktu metalikoen fabrikazioan. Konpresio-neuropatiak garbiketako eta ostalaritzako emakumeen artean gertatzen dira batez ere, eta 2018an txikizkako merkataritzan ere bai. Gaixotasun infekziosoak izan dituzte, batik bat, egoitzetako langileek eta ostatatzerik gabeko gizarte-zerbitzuetako langileek. Nabarmentzekoa da hezkuntzaren alorreko arnas patologien intzidentzia handia, ahots-kordetako arazo ugariengatik.

Ekoizpen-jardueretan dabilzan gizonen artean emakumeen artean baino intzidentzia-tasa handiagoa izan dute tumore-patologiei, hipoakusiei, larruazaleko gaixotasunek eta muskulu-tendoietakoa gaitzek. Gizonezkoen artean, laneko minbiziak eman dira metalurgiako eta fundizioko jardueretan (2 kasu), kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioan (2 kasu) eta eraikuntza-jardueretan (kasu 1). Arnas gaixotasunak eman dira fundizio-

enpresetan, produktu metalikoen fabrikazioan, elikagaigintzan, eta bestelako produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioan. Fundizio-enpresetan, kasu gehienak silizeak (3) eta asbestoak (1) eragindako pneumokoniosiak izan dira. Elikagaigintzan, asma-kasuak izan dira.

Gizonen artean, muskulu-tendoietako eta atal bigunetako gaitzak eman dira produktu metalikoen fabrikazioan, metalurgian, eraikuntzan, eta makinen eta ekipamenduen fabrikazioan. Konpresio-neuropatiak eman dira, batez ere, produktu metalikoen fabrikazioan, makinen eta ekipamenduen fabrikazioan, ibilgailuen fabrikazioan, eraikuntzan, eta handizkako merkataritzan.

Gaixotasun profesionalak, lanbidearen arabera

2018an EAEn eman diren 2.064 GP berrietatik % 37k industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuei eragin diete, % 21ek oinarrizko lanbideei, eta % 17k instalazioetako eta makinetako operadoreei eta muntatzaileei (GP-15 taula). Gizonezkoen artean, gaixotasunen % 50 industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuengan eman dira, eta % 22 instalazioetako eta makinetako operadoreengan. Emakumeen artean, lanbiderik kaltetuenak izan dira kualifikaziorik apalenekoak (% 29), eta ondoren ostalaritza, garbiketa, zaintza pertsonalak eta saltzaileak (% 24). Emakumeen artean, azpimarratzekoa da teknikari eta profesional zientifikoen artean ematen diren gaixotasun profesionalen % 17 hori, lanbide-talde horretan baitaude ahotseko arazoak izan ohi dituzten irakasleak.

Gaixotasun profesionalak, 1. eranskineko gaixotasun-taldean arabera

Gaixotasun profesionalak taldetan banatzeko eredu ez da aldatu urteotan zehar. Agente fisikoek eragin dituzte kasuen % 90. Gainontzeko % 10 beste taldeetan banatzen dira, eta urtez urte aldaketa gutxi egon da.

GP-16 taulan ageri da kasuen banaketa, agente eragileen taldeen arabera sailkatuta. 2018ko GP berrien % 67 hezur-eta muskulu-arazoak izan dira, estresore biomekanikoengatik (mugimendu errepikakorrak, jarrera behartuak...). GP berrien % 46 muskulu-tendoietako arazoak izan dira, eta % 21 nerbio periferikoen konpresio-sindromeak, adibidez karmo-kanalaren sindromea. Laneko zarata izan da eragilea gainerako kasuen % 13an. Eragile nagusien artean egon dira, azkenik, ahots-kordetako arazoak ahotsa behartzeagatik (kasuen % 6) eta larruazaleko lesioak substantzia sentsibilizatzaileen eta narritagarrrien eraginpean egoteagatik (% 3,5).

Arnas gaixotasunen 41 kasu berri eta 12 berriz gaixotze eman dira substantziak inhalatzeagatik, 2017an baino 6 gutxiago, pneumokoniosiak gutxitu direlako.

Dezente ugaritu dira agente biologikoek eragindako gaixotasunak: bikoiztu egin dira GP infekziosoak (gehienak, egoitzetako langileen artean), eta zoonosiak eta parasitosi-kasuak 5etik 25era pasatu dira.

2018an laneko kantzerigenoek eragindako 4 kasu erregistratu dira. Dena dela, aurrerago ikusiko den moduan, laneko minbiziak 5 izan dira, kasu bat ez baitzegoen sartuta kantzerigenoek eragindako gaixotasunen artean.

2007az geroztik, nabarmen aldatu da gaixotasun moten joera (13. irudia). Iraganean, tendoi-zorro, muskulu-lotune eta atal bigunetako arazoak ziren nagusi; baina, arautegi berria indarrean sartu zenetik, patologia horiek nabarmen murriztu eta biziki areagotu dira hipoakusiak (2013an jo zuten goia). Hipoakusiak beherantz joan dira hurrengo urteetan, baita 2018an ere. 2018an ugaritu egin dira tendoi-zorro, muskulu-lotune eta atal bigunetako arazoak, gaixotasun infekziosoak, karpoko tunelaren sindromeak eta, gutxiago, ahots-kordetako arazoak, bai eta agente kimikoek eta larruazalaren erasotzaileek eragindakoak ere.

Gaixotasunak gaixotasun profesionalen kodearen arabera sailkatuz gero, joera desberdina da gizona izan edo emakumea izan (GP-17 taula eta 14. eta 15. irudiak). Gizonen artean, ugariagoak izan dira agente kimikoek eragindako gaitzak, arnas aparatuko gaixotasunak, larruazaleko gaixotasunak, muskulu-tendoietakoa arazoak, hipoakusiak eta laneko minbiziak. Emakumeen artean ohikoagoak izan dira ahots-kordetako arazoak (153 kasu emakumeen artean, eta gizonen artean 2), gaixotasun infekziosoak eta konpresio-neuropatia periferikoak (karpoko kanalaren sindromea).

Latentzia laburreko gaixotasun gehienak 30-50 urte bitartekoen artean gertatu dira, emakumeen zein gizonen artean. Esposiziotik efektura arteko denbora luzeagoa behar duten patologietan (adibidez, hipoakusiak), kaltetu gehienak 50 urtetik gorakoak dira. Laneko minbizi guztiak daude 50 urtetik gorakoan artean. Azpimarratzekoa da 16 pneumokoniosi-kasu berrietatik 6 (guztizko 8etatik 4 silikosiak) eta patologia horrek eragindako berriz gaixotze bakarria adin ertaineko langileen artean eman direla, eta ez, ohikoa den moduan, adin aurreratuagoetan (GP-17 taula).

Gaixotasunak diagnosi medikoaren kodearen (GNS-10) arabera sailkatzean, joera bera ikusi dugu (GP-21 taula). Emakumeen artean, intzidentzia handiagoa izan dute konpresio-neuropatia periferikoek (karpoko tunelaren sindromea), ahots-kordetako arazoek, eta patologia infekziosoek.

Gizonen artean, berriz gaixotzeen 626 parteetatik % 72 tendoietakoa eta muskulu-lotuneetako patologiak izan dira, % 18 karpoko kanalaren sindromeak, eta % 4 larruazaleko patologiak. Emakumeen berriz gaixotzeak gutxiago izan dira, % 45 karpoko kanalaren sindromeak, % 42 tendoietakoa eta muskulu-lotuneetako patologiak, eta % 10 ahots-kordetako arazoak (ia guztiak emakumeen artean).

Gaixotasun profesionalak, diagnostiko-taldeen arabera (GNS-10)

Gaixotasun motaren arabera bilakaera argiago ikusten da diagnostikoaren arabera sailkatuz gero, eta ez taldearen eta azpitaldearen arabera (GP-19 taula eta 16., 17. eta 18. irudiak). Aurreko urtearen aldean, ugaritu egin dira muskulu-tendoietako arazoak, konpresio-neuropatia periferikoak, gaixotasun infekziosoak, larruazaleko eta arnas gaixotasunak, eta jaitsi egin dira entzumeneko patologiak eta tumoreak.

Gaixotasun profesionalak taldearen eta azpitaldearen arabera sailkatzeak (I. Eranskina) ezkutatu egiten ditu hainbat diagnostiko, diagnostikoaren arabera sailkapena desberdina baita. Adibidez, 2018an 5 gaixotasun tumoral eman dira, baina eragile kantzerigenoko 4 gaixotasun bakarrik agertzen dira taldearen arabera sailkapenean. Laneko 5 gaixotasun horiek izan dira bronkioko edo birikako 4 tumore, eta sudur-hobiko minbizi 1.

Hiru lurraldeetan eta bertako sektoreetan gaixotasun-talde bakoitzaren intzidentzian alderik zegoen jakiteko, gaixotasun-taldean, lurraldearen eta jarduera-sektorearen arabera intzidentzia-tasak lortu ziren (GP-20 taula).

Lurralde bakoitzeko sektoreek ez dute gaixotasun-joera bera. Hiru lurraldeetako intzidentziarik handiena muskulu-tendoietako eta atal bigunetako arazoak izan dira, eta industria-sektoreko enpresetan eman dira hiru lurraldeetan. Hiru lurraldeetan, industrian eman da gaixotasun dermatologikoen eta hipoakusien intzidentzia gehien. Konpresio-neuropatia periferikoen intzidentzia handiagoa izan da industriaren sektorean Bizkaian eta Gipuzkoan, eta lehen sektorean Araban. Asmaren tasa handiagoa izan da eraikuntzan Araban eta Bizkaian, eta zerbitzuetan Gipuzkoan. Gaixotasun tumoralei dagokionez, intzidentzia handiagoa izan da eraikuntzako enpresetan Gipuzkoan, industriaren sektorean baino. Arabaren eta Gipuzkoaren aldean, Bizkaian gaixotasun infekziosoek eragin handiagoa izan dute lehen sektorean.

Berriz gaixotzeak, diagnostiko-taldeen arabera (GNS-10)

19. irudian ageri den moduan, 2018an asko ugaritu dira berriz gaixotzeak, batez ere gizonezkoen artean. Berriz gaixotze gehienak izan dira muskulu-tendoietako arazoak eta nerbio periferikoen konpresioak, adibidez karpoko kanalaren sindromeak. Bi arazo horien berriz gaixotzeak gorantz joan dira azken 5 urteotan. Emakumeen artean gorantz joan dira nerbio periferikoen konpresioen berriz gaixotzeak, eta gehiago izan dira muskulu-tendoietako berriz gaixotzeak baino (gutxitu egin dira 2018an).

2.3. Arrisku-neurriak. Arrisku-taldeak

2018an gaixotasun profesionalen arrisku handiena zuten taldeak identifikatzeko, lau faktoreren arabera intzidentzia-tasen arrazoia hartu da kontuan: lurraldea, sektorea eta langilearen sexua eta adina.

Faktore horietako bakoitzaren intzidentzia-erlazioak gainerako faktoreekin doituta daude, eta horrek adierazten du faktoreak duen eragina gaixotasun profesionalaren intzidentzian, gainerako faktoreak kontuan hartu gabe. Doitzeko, Poisson-en eredu baten bidez modelizatu dira tasak.

20. irudian gaixotasun profesionalen doitutako intzidentzia-erlazioa agertzen da, azken zazpi urteetan aztertu diren lau faktoreetako bakoitzerako. Sexuen arteko aldeei buruzko grafikoan ikus daitekeen bezala, gizonen gaixotasun profesionalak izateko arriskua, beste faktoreekin doituta, emakumeena baino 1,3 aldiz handiagoa da oraindik ere, 2014tik aurrera aldea txikitu den arren, eta 2018an emakumeena adinakoa da. Hau da, azken zazpi urteetan GP bat izateko arriskua ez da askoz handiagoa gizonengan emakumeengan baino, nahiz eta 2012an eta 2013an zertxobait igo zen, 2014an eta 2015ean gutxitu, eta 2016an berdindu. Hala ere, GP-11 taulan, gizon eta emakumeen intzidentzia-tasen erlazioa bikoitza zen, eta horrek agertzen zuen arriskua benetan baino askoz handiagoa da gizonengan, beste faktoreek nahasten dutelako.

Adin-talde bakoitzaren GP arriskua hurbilduz joan da azken urteotan, eta horrela jarraitzen du 2018an: intzidentzia-erlazioa apur bat jaitsi da 30-49 urtekoen artean, eta batez ere helduenen artean, 2017ren aldean. Gaixotasun profesionalen intzidentzia handiagoa da urteetan aurrera joan ahala, baina arrisku erlatiboa murriztuz joan da adin-talderik gazteenarekin alderatuta. Adinen joera horretan eragin handia du hipoakusien kasuistika ugariak: urteetan aurrera joan ahala ematen da, kasuak gutxituz doazela ikusten da 13., 14. eta 16. irudietan, eta horrek azaltzen du adinaren arabera arriskuaren eboluzioa.

2018an Gipuzkoako intzidentzia-tasak zertxobait gaintu du Bizkaikoa, eta biek gaintu dute Arabakoa. Nolanahi ere, adina, sexua eta sektorea kontuan hartuz doituta, gaixotasun profesionalen eragina Bizkaian zertxobait handiagoa da Gipuzkoan baino, eta dezente handiagoa Araban baino.

Jarduera-sektoreari dagokion grafikoan ageri da sektore bakoitzaren arriskua zenbatekoa den, zerbitzuen sektorearekin alderatuta, hori hartu baita erreferentzia moduan, eta gainerako faktoreak doitu ondoren. Industria da arriskurik handienekoa, intzidentzia ia 5 aldiz handiagoa baitu zerbitzuen sektorean baino, ondoren eraikuntza, ia 3 aldiz handiagoa, eta azkenik lehen sektorea, 1,5 adiz handiagoa.

Prebentzioaren ikuspegitik, gaixotasun profesionalen arriskurik handiena duten taldeak identifikatzea komeni da. Horretarako, azterketa bera egin da, baina GP bajadunen kasu berrietara mugatuta, patologia larriagoak aurkitze aldera. 21. irudian lau faktoreen arabera grafikoak agertzen dira, baina LG bajadunen kasu berrietara mugatuta.

Nabaria da sexuaren arabera arriskua alderantzizkoa dela. Laneko bajadun patologietan, emakumeek gaixotasun profesionalen arrisku handiagoa izan dute gizonen baino, gainerako doitze-faktoreak kontuan hartu gabe. Emakumeen arriskuan dagoen alde hori murriztuz joan da azken urteotan, eta 2014an berdindu bazen ere, gizonen arriskuaren gainetik egon da berriz ere 2018an. Hau da, sexuaren arabera tasa espezifikoek erakusten duten arren 2018an gizonen GP tasa emakumeena baino handiagoa dela, joera alderantzizkoa da adina, jarduera-sektorea eta lurraldearen arabera doitzean, eta horrek adierazten du GP bajadunek intzidentzia handiagoa dutela emakumeen artean.

Intzidentzia-erlazioa adinaren arabera ere aldatu da. GP bajadunen intzidentzia ia berdina da adin ertainekoen eta nagusien artean. GP bajadunak + baxarik gabekoak zenbatzean, desberdin gertatzen da; izan ere, 50 urtetik gorakoen artean GP baxarik gabeko ugari daude, hala nola hipoakusiak. Patologia bajadunak aintzat hartzean, hipoakusien eragina desagertu eta ez dago alderik adin ertainekoen eta nagusien artean.

Lurraldeari dagokionez, GP bajadunen eragina berdintsua da Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Araban baino handiagoa.

Sektorearen arabera arriskuari dagokionez, GP bajadunetan ere industria izan da arriskutsuena urte guztietan, ondoren eraikuntza, eta joera hori mantendu egin da 2018an. 2018an murriztu egin da GP bajadunen intzidentzia lehen sektorean, zerbitzuen sektorea baino beharaxeago.

Gaixotasun profesionalen tasa espezifikoak, lurralde, sektore, sexu eta adinaren arabera (GP-24 eta 25 taulak)

GP-24 taulan datoz gaixotasun profesionalen tasa espezifikoak, lurralde, sektore, sexu eta adin-taldearen arabera. GP berri bajadunak eta baxarik gabekoak kontabilizatu dira. 2018an gaixotasun profesionalen guztizko intzidentzia-tasa 2,60koa izanenez mila langileko, tasa espezifikoak hori lau aldiz dira talde espezifiko batzuetan. Adin ertaineko eta aurreratuko Bizkaiko industriako langileen artean eman dira tasarik altuenak, eta adin aurreratuko Gipuzkoako industriako eta eraikuntzako langileen artean.

GP-25 taulan datoz GP bajadunen tasa espezifikoak. GP bajadunen intzidentzia-tasa gordina mila langileko 0,73koa izan da 2018an, baina tasa askoz handiagoak izan dira talde askotan. Hiru tasarik altuenak eman dira industrian, adin aurreratuko Arabako emakume langileen artean, Bizkaiko adin ertaineko (30-49 urte) emakume langileen artean, eta Bizkaiko adin ertaineko langileen artean.

2.4. Gainerako autonomia-erkidegoekiko alderaketa

Gaixotasun profesionalen eragina aldatu egiten da autonomia-erkidego batetik bestera. Historikoki, gaixotasun profesionalak Nafarroan izan dute eraginik handiena, eta ondoren Euskadin, Gizarte Segurantzako gaixotasun profesionalen Behatokiko txostenen arabera (CEPROSS). 22. irudian ageri da gaixotasun profesionalen eragina autonomia-erkidego bakoitzean, bai eta intzidentzia-tasa normalizatua ere, CEPROSSen 2018ko txostenetik atereak. Autonomia-erkidego bateko tasa normalizatua da erkidego horretan espero den intzidentzia-tasa baldin eta erkidego horretan jarduera bakoitzean lanean ari den biztanleriak izan balu urte horretan Estatuan jarduera bakoitzean izandako eragina.

